

Tribuetako eta landa eremuko adivasi emakumeen eskubide sanitario, sozial eta ekonomikoen erabilera sendotzea

Tokiko erakundea: Adivasis Samaj Seva Trustek

Iraupena: 2019ko abendua – 2020ko abendua

Zenbatekoa: 15.592,32 €

Finantzaketa: [Ordiziako Udala](#) eta tokiko erakundea

Laburpena:

Egitasmo honekin, tribuetako eta landa eremuetako adivasi emakumeen eskubide sanitario, sozial eta ekonomien erabilera indartu eta bultzatu nahi da, Gujarat Estatuko Narmada eta Surat barrutietan. Helburua lortzeko:



- Tribuetako eta landa eremuko adivasi emakumeen beraien kreditu eta aurrezki kooperatiba finantzarioen antolakuntza kudeaketa sendotu nahi da, ziurtatuz garapen eredu partehartzaile, demokratiko eta iraunkorra.
- Narmada eta Surat barrutietako landa eremuetako adivasi emakumeen erakundeen kudeaketa sendotu nahi da, haien partehartzea sustatuz beraien herrietako garapen planetan eta jarduera komunitarioetan, genero estereotipoen eraldaketa sozio-kulturalak lortze aldera.
- Emakumeen osasun prebentiboa eta sendagarria sendotu nahi da, beraien eskubideak ziurtatuz Narmada eta Surat barrutietan trebakuntzen eta osasun kanpainen bidez.